

EKINTZAILEAREN BILAKETA

Nekazaritzan-ortugintzan aritu nahi duzu eta esperientzia falta zaizu sektorean?

Nekazaritzarako test-gune bat dugu zuretzat, Haztegia Lea-Artibai izenekoa.

Barazkigintzan aritzeko leku bat, hurbileko elikagai ekologikoak lantzeko gune bat eta saltzeko aukera emango dizuna.

Beharrezko azpiegiturak dituen lursaila izango duzu negutegia, biltegia, tresneria,... eta honez gain, lurra lantzen ari zaren bitartean, prestakuntza zein aholkularitza jasoko duzu eta zure salmentatik lortzen dituzun sarrerak osatzeko soldata bat.

2 urteko esperientziaren ostean zuk erabakiko duzu lehen sektorean jarraitu nahi duzun lanean.

HAZTEGIA LEA-ARTIBAIN DUZU AUKERA!

HAZTEGIA LEA-ARTIBAI

Nekazaritzako test guneak nekazaritza ekimenari bideratuta dagoen ekintzailerentzako programa bat da, behin betiko norbere ustiatetia martxan jarri aurreko pausua, inbertsiorik egin beharrik gabe.

Haztegia Lea-Artibai, eskualdeko elikadura burujabetza eta lehen sektorea indartzeko proiektua da. Lea-Artibaiko nekazaritzako test gune hau, Lea Artibaiko Landagarapen alarteak sustatuta dago eskualdeko udalen laguntzarekin. Ispaster eta Lekeitio artean kokatuta dago, Eluntzeta – Maderas de Lekeitio lurretan.

Nekazaritza proiektu bati ekiteko eta ekoizpen ekologikoko praktiketan sakontzeko interesa duten pertsona guztiei zuzenduta dago.

2 ekintzailerentzako lekua egongo da, hautaketa prozesu bat igaro ostean sartu ahal izango dira, bi urteko iraupenarekin, 2026ko otsailean hasita.

Beharrezkoak diren azpiegitura eta tresnak eskainiko dira, aholkularitza eta formazioarekin batera.

Guztira 11.700m² bi pertsonentzat, 1.500m²ko negutegiak, lan-tresnak, makineria eta biltegia.

ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITUZU SARTZEKO?

- *Nekazaritza-sektorean enpresa bat garatzeko interesa izatea.*
- *Gidabaimena.*

ZER BALORATUKO DA?

- *Nekazaritzako lanetan edo ikasketetan esperientzia izatea.*
- *Eskualdean bizitzea.*
- *2 pertsona edo gehiagoren arteko ekimena izatea.*
- *Gaztea izatea.*
- *Emakumezkoa izatea.*
- *Euskararen ezagutza.*